

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA

Etxeko hondakinen baliokide diren industriako hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzuen tasaren zergadunen erroldak erakusgai jartzea: 2018ko bigarren hiruhilekoa, industria.

Urola Kostako Udal Elkartearen lehendakariak Udal Elkartearen osatzen duten udalerrietan (Aia, Getaria, Oriu, Zarautz eta Zumaia) industriak sortutako etxeko hondakinen baliokide diren industriako hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzuen tasari dagozkion 2018ko bigarren hiruhilekoko zergadunen erroldak onartu ditu eta, horrenbestez, jendaurrean erakusgai jartzen dira, Gipuzkoako Tokiko Ogasunak Arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 14.1 artikulua xedatutako betez.

Era berean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua onesten duen abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren 18. artikulua betez, iragarki hau argitaratzen dugu, ondoko arau hauen arabera:

a) *Eskura dagoen lekua:* Urola Kostako Udal Elkartearen bulegoak (Urdaneta bidea 6, Zarautz), jendaurreko arreta ordutegian.

b) *Erakusgai egongo den epea:* kobrantza epea hasteko dataren aurreko hamabost lanegunak.

c) *Desadostasunak adierazteko epea:* errolden edukiaren erabakiaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke (administrazioarekiko auzi errekurtsoaren aurretik), beheerago finkatzen den ordaintzeko borondatezko epealdian edota hila-beteko epean, hura amaitzen denetik kontatzen hasita.

d) *Errekurtsoa aurkezten zaion organoa:* Lehendakariak.

e) *Erreklamazioak aurkezteko lekua:* Urola Kostako Udal Elkartearen Sarrera Erregistroa, jendaurreko arreta ordutegian.

f) *Errekurtsoa aurkeztearen ondorioak:* gorago aipatutako Foru Arauaren 14.2 artikulua ezartzen dituenak.

g) *Kobratzeko epea:* 2018ko urriaren 15etik azaroaren 30era (biak barne).

h) *Diru-sarrera egiteko modua:* Erreziboak postaz bidaliko zaizkie zergadunei, zergadunek adierazitako helbide fiskaletara. Ordainketa helbideratu gabe duen zergadunak ordainagiria jasotzen ez badu, duplikatua eskatu beharko du borondatezko epealdian, bere udalarekin edo Urola Kostako Udal Elkartearen bulegoetan (jendaurreko arreta ordutegian). Helbideratutako ordainketak kargatuko dira azaroaren 30ean, zergadunek adierazitako kontuetatik.

i) *Ordaintzeko leku eta moduak:*

1. Ordain daiteke ordainagirian adierazten diren banketxeetan, horretarako ezarritako ordutegian, jasotako ordainagiria aurkeztuta.

2. Ordain daiteke online, Udal Elkartearen webgunearen bidez: <http://www.urolakosta.eus/eu/online-ordainketa>.

3. Ordain daiteke hori egiteko zerbitzua eskaintzen duten kutzazainen bidez.

MANCOMUNIDAD UROLA-KOSTA

Exposición pública de los padrones fiscales relativos a la tasa por la prestación de servicios de recogida y tratamiento de residuos industriales asimilables a urbanos: segundo trimestre de 2018, industria.

Aprobados por Resolución de Presidencia los padrones fiscales relativos a la tasa por la prestación de servicios de recogida puerta a puerta y tratamiento de residuos industriales asimilables a urbanos generados por la industria en los municipios que integran la Mancomunidad Urola Kosta (Aia, Getaria, Oriu, Zarautz y Zumaia) correspondientes al segundo trimestre, se someten a información pública, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 14.1 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

Asimismo, se publica el presente anuncio, que requiere el artículo 18 del Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que señala las siguientes reglas:

a) *Lugar donde están de manifiesto:* en las oficinas de la Mancomunidad Urola Kosta, C/ Urdaneta bidea 6, Zarautz, en horario de atención al público.

b) *Plazo de exposición al público:* los quince días hábiles anteriores al inicio del periodo de cobro.

c) *Plazo para manifestar la disconformidad:* contra el contenido de los padrones podrá interponerse recurso de reposición previo al contencioso administrativo, durante el periodo voluntario de pago que se indica más abajo o durante el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de finalización de aquel.

d) *Órgano ante el que se recurre:* Presidencia.

e) *Lugar de presentación de reclamaciones:* Registro de entrada de la Mancomunidad en horario de oficina.

f) *Efectos de la interposición del recurso:* Los dispuestos en el artículo 14.2 de la Norma Foral citada.

g) *Periodo cobratorio:* Desde el 15 de octubre de 2018 al 30 de noviembre, ambos inclusive.

h) *Modo de ingreso:* Los recibos se enviarán por correo ordinario a los domicilios fiscales indicados por los contribuyentes. Cuando un contribuyente que no tenga domiciliado el pago, no recibiese el citado recibo, deberá solicitar un duplicado, dentro del período voluntario, en su respectivo Ayuntamiento o en las oficinas de la Mancomunidad, en horario de atención al público. Los recibos domiciliados serán cargados el día 30 de noviembre en las cuentas indicadas por los contribuyentes.

i) *Lugar de pago:*

1. En las entidades bancarias colaboradoras que se relacionan en la carta de pago, dentro del horario establecido por las mismas, presentando el recibo completo que se envía.

2. *A través de la web de la Mancomunidad:* <http://www.urolakosta.eus/es/pago-online>.

3. Por medio de cajero automático en las entidades de crédito que dispongan del servicio.

Borondatezko ordainketa egiteko epea amaitutakoan, ordaindu gabeko ordainagiriak prozedura exekutiboaren bidez exijituko dira eta dagozkion errekareruak, berandutze interesak eta sortzen diren bestelako kostuak eskatuko dira.

Zarautz, 2018ko irailaren 26a.—Igor Iturain Ibarburen, Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakaria. (6510)

Se advierte que el vencimiento del plazo de pago voluntario, determinará el inicio del periodo ejecutivo de las deudas no satisfechas, devengándose los recargos correspondientes, intereses de demora y, en su caso, las costas que se produzcan.

Zarautz, a 26 de septiembre de 2018.—El presidente de la Mancomunidad Urola Kosta, Igor Iturain Ibarburen. (6510)